



ARTE PLASTIKOETAKO ETA DISEINUKO ARTE-IRAKASKUNTZEI BURUZKO INFORMAZIOA

1.- Zer dira arte plastikoetako eta diseinuko irakaskuntzak, eta zertarako balio dute

Arte-irakaskuntzak *Erregimen Berezikotzat* hartuta daude Hezkuntzako Lege Organikoak definitutako hezkuntza-sisteman, eta musika-, dantza-, arte dramatiko-, ondasun kulturalen kontserbazio- eta zaharberritze- eta arte plastiko- eta diseinu-irakaskuntzak barne hartzen ditu.

LOEk, oro har arte-irakaskuntza guztietarako jasotako aginduaren arabera, arte plastikoetako eta diseinuko irakaskuntzei dagozkien ikasketen antolamenduak honako hau dauka helburu: ikasleei, etorkizuneko profesionalak diren aldetik, **kalitateko arte-prestakuntza ematea**, eta **lanbide-prestakuntza bermatzea**, arte plastikoekin eta diseinuarekin zerikusirik duten jarduerak behar bezala egiteko.

Arte plastikoetako eta diseinuko ikasketak bi mailatan sailkatzen dira: arte plastikoetako eta diseinuko irakaskuntza profesionalak (heziketa zikloak) eta arte plastikoetako eta diseinuko goi-mailako arte-irakaskuntzak.

Arte plastikoetako eta diseinuko irakaskuntza profesionalak Arte Plastikoetako eta Diseinuko teknikariaren eta goi-mailako teknikariaren titulua lortzea dakarte.

Diseinuko goi-mailako arte-irakaskuntzak Diseinuko goi-mailako titulua, dagokion espezialitatean, dakarte. Titulu hori gradu-tituluaren baliokidea izango da, ondorio guztietarako.

Diseinua funtsezko faktorea da herrialde baten lehiakortasun ekonomikoa hobetzeko, hainbat inplikazio dituelako enpresa-estrategiei begira, produktuaren kalitateari eta markari dagokienez, herrialdearen produkzioen lehiakortasuna sustatzeko, merkatu nazionaletan zein nazioartekoetan. Osasunarekin, irakaskuntzarekin, lurralde- eta hiri-antolaketarekin, garraioekin eta abarrekin zerikusirik duten zerbitzuen programazioan diseinua ere kontuan hartzeak ezinbestean ekarri behar du hain artifizialak eta erasokorrak ez diren eta hain hondatuta ez dauden inguruneak sortzea, gizakiaren neurrikoagoak direnak, eta, horrenbestez, ekarpen eraginkorra egitea gizarte-ongizatearen hobekuntzari.



2.- Zer egitura dute arte plastikoetako eta diseinuko arte-irakaskuntza hauek?

| HEZKUNTZA MAILAK: | TITULUA |
|----------------------------|-------------------------------|
| IRAKASKUNTZA PROFESIONALAK | |
| • Erdi-maila | APDko teknikaria |
| • Goi-maila | APDko goi-mailako teknikaria |
| GOI-MAILAKO IRAKASKUNTZAK | Diseinuko goi-mailako titulua |

IRAKASKUNTZA PROFESIONALAK

LOEk, arte plastikoetako eta diseinuko irakaskuntza profesionalak antolatzean, Lanbide Heziketan baliatzen duenaren antzeko egitura erabiltzen du, eta, hala, gainera, hezkuntza-sistema eta mundu profesionala txertatzeari atxikitako egoera eta problematika guztiak partekatzen ditu. Hala ere, irakaskuntza horien osagai artistikoek eta hainbat eskakizun akademikok –besteak beste, irakaskuntza horietara **sartzeko proba espezifikoak gainditu** behar izatea eta, titulua lortzeko, **amaierako proiektu bat egin** behar izatea–, marko akademiko berezia moldatzen dute, Lanbide Heziketatik bereizten dituen, hain zuzen. Guzti horrek laguntzen du azaltzen, zergatik sartzen diren arte-irakaskuntzak Erregimen Berezikiko Irakaskuntzen barruan.

Irakaskuntza horien egiturak hiru fase ditu, baina horien iraupena aldatu egiten da, bete beharreko eginkizunen konplexutasunaren eta garatu beharreko zereginen arabera.

| EGITURA OROKORRA (Erdi-mailako eta goi-mailako zikloak) | |
|---|----------------------------------|
| Ikastetxeko prestakuntza-fasea: prestakuntza-moduluak | |
| Enpresa, estudio edo lantegietako prestakuntza praktikoaren fasea | |
| Amaierako Lana (erdi-maila) | Proiektu integratua (goi-maila) |

Erdi-mailako heziketa-ziklo bateko ikasketek prestaketa ematen dute aukeratutako lanbidearekin zerikusirik duten lantze, gauzatze eta zuzeneko esku-hartze orokorreko eginkizunak betetzeko.

Arte plastikoetako eta diseinuko erdi-mailako heziketa-zikloa gainditzen duten ikasleek Arte Plastikoetako eta Diseinuko teknikari-titulua eskuratzen dute, dagokion espezialitatean. Arte Plastikoetako eta Diseinuko teknikariaren tituluak batxilergoa egiteko aukera ematen du.

Goi-mailako heziketa-ziklo bateko ikasketek prestaketa ematen dute gauzatze hutsa baino gehiago diren eginkizunak betetzeko, eta plangintza-, antolaketa-, kontrol-, gainbegiratze- eta giza taldeen zuzendaritza-jarduerak egiteko.

Arte plastikoetako eta diseinuko goi-mailako heziketa-zikloa gainditzen duten ikasleek Arte Plastikoetako eta Diseinuko goi-mailako teknikari-titulua eskuratzen dute, dagokion espezialitatean. Arte Plastiko eta Diseinuko goi-mailako teknikariaren tituluak Goi-mailako ikasketetara –unibertsitatekoak ala bestelakoak– zuzenean sartzea ahalbidetzen du.



DISEINUKO GOI-MAILAKO ARTE-IRAKASKUNTZAK

Diseinuko goi-mailako arte-irakaskuntzen xedea diseinu-arloko profesional kualifikatuak prestatzea da. Profesional horiek honako gaitasun hauek garatuko dituzte: zenbait arlotako diseinuko produktuak eta zerbitzuak elurtzea, definitzea eta optimizatzea, ezaguera zientifiko, humanistiko, teknologiko eta artistikoetan aditua izatea, horiei lotzen diren prozedurak eta metodoak jakinik, baita artistiko-, kultural-, gizarte- eta ingurumen-esanahia duten balioak sortzea ere, gertatuko diren eraldaketa sozialei eta teknologikoei erantzunez.

Diseinuko goi-mailako arte-irakaskuntzak gainditzen dituzten ikasleek Diseinuko Goi-mailako Titulua eskuratzen dute, dagokion espezialitatean. Titulu hori, ondorio guztietarako, unibertsitateko gradu-tituluaren baliokidea da.

Diseinuko goi-mailako arte-irakaskuntzek, espezialitate guztietan, lau ikasturte irauten ditu, eta 60 ECTS kredituk osatzen dute ikasturte bakoitza. Hortaz, guztira 240 ECTS kredituk osatzen dute diseinuko goi-mailako arte-irakaskuntzetako espezialitate bakoitza, Europako Kredituen Transferentzia Sistemarekin bat.

Ikasgai bakoitzeko kredituek honako alde hauek hartuko dituzte barnean: eskola-orduak (teorikoak zein praktikoak), ikasketa-orduak, mintegiak, lanak, praktikak eta proiektuak egiteko orduak, eta azterketak eta ebaluazio-probak prestatzeko eta egiteko orduak.

3.- Nola sartzen da arte plastikoetako eta diseinuko arte-irakaskuntzetara?

| MAILA | ESKATZEN DIREN BETEBEHAR AKADEMIKOAK | | PROBA |
|---|--|---|-------------------|
| Erdi-mailako heziketa-zikloak | Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua edo baliokidetzat jotako beste bat | + | PROBA ESPEZIFIKOA |
| Goi-mailako heziketa-zikloak | Batxilergoko titulua edo baliokideren bat | | PROBA ESPEZIFIKOA |
| Diseinuko goi-mailako arte-irakaskuntzak. | Batxilergoko titulua edo baliokideren bat | | PROBA ESPEZIFIKOA |

LOEk ezarritakoaren arabera, irakaskuntza hauetara sartzeko, maila bakoitzean beharrezkoak diren betebeharrak akademikoak (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua erdi-mailako heziketa zikloetan, eta Batxilergoko titulua goi-mailako heziketa zikloetan eta goi-mailako arte-irakaskuntzetan) betetzeaz gain, ezinbestekoa izango da kasuan kasuko sarbide-proba espezifikoa gainditzea, ikasleak egiazta dezan dagozkion arte-irakaskuntzak probetxuz egiteko beharrezko gaitasunak dauzkala.



Bestalde, hezkuntza-sistema arautzen duten hainbat araubidek beste titulu batzuk biltzen ditu, arte-irakaskuntza horietara sartzeko baliokideak direnak.

Halaber, LOEk berak titulu horiek ez dituztenei, adinarekin loturiko baldintza jakin batzuk betetzen badituzte, aukera ematen die betebeharrak akademikoaren ordezkotara heldutasun-probara aurkezteko. Heldutasun-proba horrek, arte-irakaskuntzetara sartzeko ezarritako baldintza akademikoak egiaztatuko ditu. Ondorioz, heldutasun-proba gainditzen dutenek proba espezifikoak egin dezakete nahi duten arte-irakaskuntzetara sartzeko.

SARBIDE-PROBA ESPEZIFIKOAREN EZAUGARRIAK.

Probaren edukia bat etorriko da sartu nahi den heziketa-zikloko edo diseinuko goi-mailako arte-irakaskuntzarako mailaren aurreko hezkuntza-etapako curriculumekin, eta, era berean, zerikusia izango du arte plastikoetako eta diseinuko heziketa-zikloek –lanbide-arloetako bakoitzean– nahiz diseinuko goi-mailako arte-irakaskuntzek –espezialitatetako bakoitzean– dauzkaten ikasgaiekin.

4.- Unibertsitate-ikasketetara sartzea goi mailako heziketa-zikloetatik

Lanbide Heziketako goi-mailako heziketa-zikloetan gertatzen den bezala, Arte Plastikoetako eta Diseinuko Goi-Mailako Teknikariek zuzenean sar daitezke unibertsitatara, baita beste goi-mailako ikasketetara ere.

http://www.ehu.es/Unibertsitatera_sartzeko_bideak/Sartzeko_bideak/Goi-Mailako-Heziketa-Zikloak

Hona hemen goi-mailako heziketa-ziklotik unibertsitate-ikasketetara sartzeko bideei buruzko informazioa.

http://www.easdvtoria.com/eu/hezkuntza-eskaintza/diseinuko_SARBIDEAK

Hona hemen Diseinuko goi-mailako arte-irakaskuntzarako sarbideen buruzko informazioa.



5.- Eskolak eta ikasketak

| | | | | | | |
|--|--------------------------------------|-------|------------------------|--------------|--|--|
| EASD VITORIA-GASTEIZ ADGE | Cuadrilla de Salvatierra s/n | 01013 | Vitoria-Gasteiz | 945 12 33 95 | info@easdvtoria.com | http://www.easdvtoria.com/eu/ |
| CAAPD KUNSTHAL APDIB | Plaza Txanaleta-Colon Ibilbidea z.g. | 20301 | Irun | 943 61 64 66 | kunsthal@kunsthal.es | http://www.kunsthal.es |
| IES USANDIZAGA-PEÑAFLOIDA-AMARA BHI | Aitzol parkea, 1 A | 20011 | Donostia-San Sebastian | 943 45 43 66 | 013025aa@hezkuntza.net | www.usandizaga.com |
| IEFPS POLITECNICO EASO POLITEKNIKOA GLHBI | Aitzol parkea, 2 | 20011 | Donostia-San Sebastian | 943 45 54 22 | idazkaria@easo.eus | www.easo.hezkuntza.neti |
| CAAPD INUTEC APDIB | Puente de Deusto 7 | 48014 | Bilbao | 944 762 890 | inutec@inutec.es | www.inutec.es |
| IES IBARREKOLANDA BHI | Arbolagana 2 | 48015 | Bilbao | 944 477 016 | ibarrekolanda@ibarrekolanda.net | www.ibarrekolanda.hezkuntza.net |
| CAAPD ARGI ARTE APDIB | Travesia del Tivoli 6-8 | 48007 | Bilbao | 944 131 110 | info@argiarte.com | www.argiarte.com |

| | | ARABA | GIPUZKOA | | | BIZKAIA | | |
|--|---|-------------------------------------|----------|--------------------|---|---------|-----------------------|----------|
| | | Arte eta Diseinu Goi mailako Eskola | Kunsthal | IES Usandizaga BHI | IEFPS Politécnico Easo Politeknikoa GLHBI | Inutec | IES Ibarrekolanda BHI | Argiarte |
| ARTE PLASTIKOETAKO ETA DISEINUKO GOI-MAILAKO HEZIKETA-ZIKLOAK | ARGAZKIGINTZA | | | | | | | |
| | GRAFIKO PUBLIZITARIOA. | | | | | | | |
| | ILUSTRAZIOA | | | | | | | |
| | ANIMAZIOA | | | | | | | |
| | LORATEGIKO ELEMENTUAK | | | | | | | |
| | DEKORAZIO-LANEN PROIEKTUAK ETA ZUZENDARITZA | | | | | | | |
| | BITXIGINTZA ARTISTIKOA | | | | | | | |
| DISEINUKO GOI-MAILAKO ARTE-IRAKASKUNTZAK | BARNEALDEAREN DISEINUA | | | | | | | |
| | DISEINU GRAFIKOA | | | | | | | |